

OSTEGUNA

2017/12/07
 5. urtea, 782. zenbakia
 107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €



**‘Rosalia alpina’
 kakalardoa
 lehen aldiz
 gereziondo
 batean**

Arriskuan dagoen espeziea da eta aurkikuntza Aranzadiko entomologoek egin dute Asteasun // 2



Maider Mendizabal anoetarra atzo, Emakume Master Cup txapelketako sari banaketan, Sopelako pilotalekuan. MARISOL RAMIREZ/ARGAZKIPRESS

Arriskatuta ere, ezin izan du finala irabazi Mendizabalek

22-13 irabazi du Leire Etxanizek Emakume Master Cup txapelketa elite mailan. Maider Mendizabal anoetarrak estutu du, baina ezin izan dio bizkaitarraren sasoiari eutsi; partida ederra eskaini dute pilotariek // 5

Hilabeteetako lanak amaituta, Nafarroa etorbidea berria da jada

2017ko aurrekontuko inbertsio handienetakoa izan da; zortzi hilabete lanek oinezkoen erosotasunaren aldeko apustua egin dute // 4

Naturaltasunez hartutako erabakia, besteon begietara

Ibarrako Haizeak hamar urte besterik ez dituen arren, gauzak argi ditu: ez dagokion gorputzean jaio da. Abuztuan hasi zuen aldaketa prozesua // 7

Arriskuan dagoen kakalardoa, lehen aldiz gereziondoan

Asteasun egin dute aurkikuntza Aranzadiko entomologoek. Orain arte, 'Rosalia alpina' espeziea ez dute gereziondo batean ugaltzen behin ere ikusi.

Jon Miranda Asteasu

Rosalia alpina, alpetar kakalardo adarluzea da, zeranbizidoen familiako intsektua eta 15 eta 38 milimetro artean neurtzen dituen. Arren kasuan, antenek gorputzaren bikoitza neurtu diezaieke eta gorputza bezainbeste emeen kasuan. Orban beltz batzuk ditu eta urdin grisaxka kolorekoa da. Kamuflatzen laguntzen dio horrek, batez ere pagondoetan, hori baitu ohiko bizilekua.

Edo hori uste zuten behintzat entomologoek orain arte. Aranzadi zientzia elkarteko kidea da Alberto Castro Gil eta kakalardo espezie hau ikertu izan du: «Europako beste leku batzuetan arbola klase ezberdinetan topatu izan da, baina hemen Euskal Herrian, nagusiki, pagoan deskribatu izan da». *Rosalia alpina* espezieko banako helduak aktiboki dira udan, ekainetik irailera bitartean. Estaltzearen ondoren, emeek arrautzak jartzen dituzte hildako zuhaitzetan, edo bizirik egon arren, parte handi batean hildako egurra dutenetan. Larbak bertatik elikatzen dira. «Banako helduak arbola batean ikusteak ez du esan nahi bertan ugaltzen direnik. Orain arte, beti pagoan ikusi ditugu larbak.

Munduan lehen aldiz gereziondo batean ugaltzen dela ikusi dugu Asteasun. Aurkikuntza esanguratsua da», esan du Castro Gilek.

PRUNUS AVIUM

Aranzadi zientzia elkarteko entomologia departamenduko kidea eta biologoa den Leticia Martinez de Murgia Fernandezek Asteasuko Errekaballaran duen lur sailean egin dute aurkikuntza. Iazko udan ikusi zituen Martinez de Murgia banako helduak lorategiko gereziondoan. Castro Gil kideari deitu eta zehaztasunez aztertu ahal izan zuten arbola. Gereziondoa erabat ihartu zela eta, adarrik altuenak kimatu zituzten Juan Angel Alvarez arbolazainaren laguntzaz. «Orduan larba bat topatu genuen adar artean, nahikoa hazita zegoena. Horrek erakusten du, *prunus avium* edo gereziondo batean ere ugaltu daitekeela kakalardo klase hau», azaldu du Castro Gilek.

Beste berezitasun bat ere nabarmendu dute Aranzadiko entomologoek. Orain arte, *Rosalia alpina* espeziea pagoetan topatu dutenez, eta pagoa, gehienetan mendialdean egoten denez, esanguratsua da oraingo honetan Errekaballaran aurkitzea ka-

kalardoa, erreka ondoan dagoen haran batean. Orain arte, Hernion, Aizkorri eta Aralarren deskribatu izan dute. Castro Gilen esanetan, «Gipuzkoan zehar ondo banatuta dagoela ikusi dugu, baina populazio txikia da, dentsitate gutxikoa. Banako gutxi daude Europako beste lurraldeekin alderatuta».

ZAURGARRIA DEN ESPEZIEA

Hala ere, *Rosalia alpina* kakalardo mota atzera egiten ari da, oro har, Europa osoan. Horregatik da babestutako espeziea; zaurgarrien artean dute gaian aditu direnek. «Bakantzen ari da», dio Castro Gilek, «bizirik egon arren, hildako egur nahikoa duten zuhaitz handi eta zaharrak falta ditugu. Euskal Herrian basoek jasan duten ustiapen intentsiboki urritu egin ditu bertako baso autoktonoak. Gaur egun, ez daukagu baso birjinik, baina are gutxiago heldua den basorik. Hortaz, habitat loturak falta zaizkio *Rosalia alpina* espezieari gure ingurunean».

Asteasun egindako aurkikuntzaren berri emanez, *First record of Rosalia alpina in Prunus avium* artikulua kaleratu dute Alberto Castro Gilek, Leticia Martinez de Murgia Fernandezek eta Francisco Molino Olmedok. *Graellsia* aldizkari zientifikoan atera dute. 1943. urtetik argitaratzen da, eta gaur egun, zoologia gaiak orokorrean lantzen dituen arren, entomologian espezializatutako argitalpena da. Sarean doan eskuratu daiteke.



Ezkerrean Alberto Gil entomologoa eta eskuinean Juan Angel Alvarez. L. M. M.



'Rosalia alpina' espezieko kakalardoaren irudi bat, Asteasun jasota. A. CASTRO

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Komertziala. Logikaline enpresak 4 lanpostu eskaintzen ditu salmenta puntuko komertzial lanerako. Euskarara eta gaztelera menperatzea eskatzen da. Formazio sendoa eta lantalde egonkorra. Interesatuak bidali curriculumarekin rrhh@logikaline.com helbidera.

Lan bila

Gidaria. Kamioi lanak edo biltze lanak egiteko prest. C1 karneta, CAP, takografo digitalaren txartela, karrillero titulua eta banaketan esperimentzia duena. Kotxea eta lanerako prestutasun osoa. Tolosaldea. Interesatuak deitu honako telefonora: 618 25 49 60.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Zabor biltzaile eta kale garbiltzaileek greba hasiko dute 19an

Erredakzioa

Eragina izango du Tolosan sindikatuek deituriko greba mugagabeak; abenduaren 19an, asteartean, 21:00etan hasiko dute greba.

ELAk, LABek, CCOOk eta UGTk deituta, abenduaren 19tik aurrera greban hasiko dira Gipuzkoako kale garbiketan eta zabor biltetan. Lurrealdearen %60ri eragingo dio lanuzteak; tartean daude Donostia, Irun, Hernani, Tolosa eta Zumarraga. Lanuztearekin, negoziatzera «behartu» nahi dituzte udalek azpikontrataturako enpresak.

Eskertze festa ospatuko du Gazteak Kalean-ek larunbatean

Erredakzioa

Larunbatean egun osoko egitaraua prestatu du Gazteak Kalean ekimenak. Ibarran elkartuko dira Eskertze Festan. 11:00etan eztabaida hitzaldia izango dute, 14:00etan bazkaria eta ondoren Suetenetik bertso taldea eta Erein izango dira. 18:00etan kontzertuak hasiko dira; tartean, Altxa Gudari, Bedeinkatuak, Sofokaos, Bake Faltsua edo Herdoil.

Bi urteko zigor eskaera, Amalur Mendizabal jo zuen ertzainaren aurka

Herrira-ren aurkako operazioak sortutako protestetan borraz jo zuen ertzain batek, orduan senatari zen anoetarra; defentsak absoluzioa eskatu du

Erredakzioa

2013an izan zen Herrira-ren aurkako operazioa. Gertakariak eragindako aldarrikapenetako batean zauritu zuten Amalur Mendizabal anoetarra, orduan Amaiurreko senatari zena. Duela egun batzuk ezagutarazi dute, fiskalak bi urteko espetxe zigorra eskatu duela Mendizabal zauritu zuen ertzainarentzat.

Hernanin gertatu zen eraso, guardia Zibila Herrira-ren Hernaniko egoitzara sartu baitzen; Ertzaintzak hartu zituen inguruak. Neurri haien aurkako jende asko batu zen bat-bateko aldarri eta protestetara eta, kalapita hartan, ertzain batek borrararekin buruan jo zuen Amalur Mendizabal.

Garai hartan, Mendizabal senatari zen Espainiako senatuan, Amaiur koalizioarekin, eta kolpea jaso zuen unean senatari txartela erakusten ari zen, emakume bat babesten zuen bitartean. Borrarekin jasotako kolpeak bost zentimetroko ebakia egin zion buruan, eta zortzi puntu jaso zituen anoetarrak. Horrela, beraz, Amalur Mendizabalek salaketa jarri zuen.



2013an izan zen gertakaria, Herrira-ren aurkako operazioaren harira. ASIER IMAZ

Donostiako 5. Instrukzio Epaitetikoko epaileak auziari berriro heldzea erabaki zuen 2016ko irailean, ertzain bat kasuan inputatuz. Orain, berriz, fiskalak bi urteko espetxe zigorra eskatu du ustez Mendizabal jo zuen ertzainarentzat, Iñigo Iruin akusazio partikularren abokatuak egin

bezala. Lesio delitua egotzi dio, ertzainari, fiskaltzak; berau, gainera, larrigarritzat jo dute, langile publikoa izateagatik. Era berean, Amalur Mendizabalentzat 3.600 euroko kalte-ordaina ere galdegin du fiskalak.

Bere aldetik, absoluzioa eskatu du defentsak.

Siemens Gamesak bertan behera utzi ditu kaleratzeak

Erredakzioa

Siemens Gamesek espedientea aurkeztuko zuela jakinarazi zutenetik langileek elkarrekin eraman dute «presio mediatiko eta soziala» eta, batez ere, langileek mobilizazio eta burututako ekintzetan agertu duten «inplikazioak» ekarri du, multinazionalaren erabakia, sindikatuek esan dutenez.

Hain zuzen ere, sindikatuek jakinarazi zuten, joan den astelehen iluntzean, multinazionalak espedientea erretiratu duela. Hasiera batean, Siemens Gamesak 155 langile kaleratzeko asmoa zuen Euskal Herrian, baina bakar bat ere ez zen Asteasuko Echesak langilea. Hala ere, mobilizazioak egin dituzte despidoak salatzeke eta, LAB, ELA, UGT eta CCOO sindikatuak azaldu dutenez, presio horrek ekarri du emaitza.

Horrenbestez, mobilizazio plangintza bertan behera utziko dute langileek eta, enpresarekin batera, beharrei nola erantzun aztertuko dute, ERE baten mehatxurik gabe. Sindikatuek nabarmendu dutenez, «etorkizuneko bermeen alde» borrokan jarraitu behar dute. Lehen neurri bezala konpromiso bat sinatu dute aktan: «Kaleratzeak saihestearren sinatu dugunok, konpromisoa hartu dugu neurri ez-traumatikoetarako formulak bilatzeko. Aldi berean, enplegua mantentzeko elkarrekin jarraituko dugu lanean».

Sindikatuek eskerrak eman dizkiete langileei: «Garaipen hau batasun sindikalaren emaitza da».

✉ GUTUNA

Erasorik ez erantzunik gabe!

Egunerokotasuneko bidegabekeria batekin egin dugu topo berriro ere. Tolosan beste eraso sexista baten berri izan dugu azkeneko astean: emakume batek eraso sexista bat sufritu du. Salaketa jarri du dagoneko.

Beste behin, agerian geratu da azaroaren 25eko aldarrikapenak beharrezkoak direla, zoritxarrez. Hala ere, hau ez da egun bateko aldarrikapenekin amaitzen: emakumeon egunerokotasuneko adibide soil bat baino ez da, egunero pairatzen baititugu antzeko eraso-

ak. Ez al zaigu bada inoiz gertatu, parrandan atera eta hitz edo ukitu «inuzenteak» jasan beharra? Nenguko arratsalde ilunetan etxerako bidean beldurra pasatzea, edo kaletik edozein egun eta ordutan «piropoak» entzun beharra?

Beharbada, askotan ez gara ohartu ere egingo edo ez diogu garrantziarik emango erasotuak izaten ari garenean, erabat normalizatutako erasoak baitira. Ordea, ez da kasualitatea, gizonezko batek, gizonezko izate hutsagatik, emakume baten aurrean sentitzen duen nagusitasuna eta erabiltzen duen indarkeria matxista.

Gizarteak horrelako jarrera matxistak normalizatu eta horren au-

rrean indiferentzia erakusten duelako gertatzen dira. Gure errealtatea da testuinguru hau, eta horren aurrean beharrezkoa da eraso horien larritasunaz jabetzea.

Hala ere, hori ez da gertatuko herri bezala kontzientzia bat sortzen ez den arte. Gogora dezagun hau ez dela soilik emakumeon borroka eta, hortaz, eraso horien erantzuna ez dagokie emakumeen taldeei bakarrik, herritar guztion erantzukizuna baita gizabanako guztion eskubideak errespetatzea.

Horretarako, beharrezkoa da herriaren kontzientzia sustatzea, eta herriak, horrelako eraso baten aurrean, ezinegona adieraztea.

Horrez gain, prebentzioarengarritza azpimarratu nahi dugu, ezinbestekotzat baitugu emakumeok kalean lasai eta beldurrik gabe ibiltzea. Horretarako emakume guztiak animatu nahi ditugu autodefentsa feministetan parte hartzera, zein emakumeon ahalduentzearen inguruko jarduerak burutzera.

Guk, Tolosako Neska Talde (TNT) bezala, gogorarazi nahi dugu eraso horiek ez direla puntualak. Emakume guztiak animatu nahi ditugu eraso sexistak salatzerara, eta eraso horien aurrean ez isiltzera.

Gu prest gade, talde eta herritar bezala, emakumeei gure babesa

eskaintzeko, eta gure eskubideei oihartzuna emateko, horrekin batera herritarren babesa izango dugulakoan.

Nahiz eta gure helburu nagusia oraindik ez bete –halako erasoak ez gertatzea–, lanean jarraituko dugu, ikusi arte, herritar guztion arazoa dela; herritarrek indarkeria matxistaren aurrean deseroso sentitu eta altxatu arte. Seriotasunez, irmo eta etengabe borrokatu beharreko gaia dela azaldu nahi dugu.

Herriak ulertu behar du eraso matxistak ezin ditugula bere horretan utzi eta normalizat hartu.

Nafarroa etorbidea, galako

Ia zortzi hilabeteko lanak amaitu eta gero, Eguberrien atarian inauguratu dute Tolosako Nafarroa etorbidea; oinezkoen erosotasunari begirako eraberritzea izan da.

Itzea Urkizu Arsuaga

2017ko aurrekontuko inbertsio nabarmenena izan da, Tolosako Udalean, Nafarroa etorbideko eraberritzearena. Esku-hartzea 2012ko Merkataritza Biziberritze-ko Plan Bereziaren oinarrian zegoen eta, horrekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Hirigune proiektuko diru laguntza ere jaso du udalak. Egitasmoak, guztira, milioi bat euro inguruko aurrekontua izan du, eta hirigintzari bezainbat eragin nahi izan diote, merkataritzari.

Izan ere, Nafarroa etorbidea auto nahiz oinezko gehien ibiltzen den kaleetariko bat da Tolosan, egunero-egunero. Eremu komertziala eta erdiguneko etorbide nagusienetako bat izaki, lehentasunezko beharren artean zen, aspalditik, udalaren agendan. Horrela, beraz, kaleko merkataria nahiz bizilagunek zinez eskertu dute eraberritzea, Garbiñe Murielok eta Ana Mari Amigak inaugurazioan azpimarratu zuten.

Eguberrietako argien piztearen ondoren inauguratu zuten kalea, galako jantzi baita 2017ko jaiak begira. Horrela, Olatz Peon alkateak udalaren jomugak gogorarazi zizkien bertaratuei: «Tolosarentzat eremu zabala, irisgarriagoa, jasagarriagoa eta atsegina da



2017ko inbertsio garrantzitsua izan da, Tolosako Udalean, Nafarroa etorbideko eraberritzea. I. URKIZU

orain. Gure helburua izan da erdiguneko trafikoa arintzea, eta oinezkoen lekua egitea. Horrekin batera, uste dugu merkataria zein ostalariei ere modu positiboan eragingo diela obrak».

Hotzak lagundu zuen irekiera eta, horrenbestez, musika eskola-ko akordeoilarien eta Udaberri

dantza taldeko ohorezko agurra-
ren ondoren, tolosarrek gogotik

**Lau metro eta erdiko
espaloiak egokitu
dituzte eraberritzean,
errepidea hiru
metrorra estutuz**

eskertu zuten Rafa Gorrotxategi-
ren txokolate beroa.

KALEAK, ZAPALTZEKO

Funtsean, Tolosako Udalak auto-
en eremua murriztu du Nafarroa
etorbidean, oinezkoen lehentasu-
na emateko. Bide horretan, alda-
keta nabarmenenak bide eta

erraien zabaleretan nabaritutako di-
tuzte herritarrek, lehen begira-
tuak. Zirkulazioaren norabidea al-
datu ez badute ere, autoentzako
bidearen asfalto berriari baldosa
itxura eman diote, eta espaloien
mailara igo, Trianguloa plazaren
eta San Frantzisko ibiltokiaren ar-
tean egin zuten bezala; espaloien
Tolosako baldosa baliatu dute.

Zabalerei dagokionez, berri-
z, autoen bidearen zabaleraz 3 metro-
ra murriztu dute, eta oinezkoen-
tzako espaloiak nabarmen zabal-
du: 4,5 metro ingurura. Behar be-
zala ibili eta zapaltzeko kaleak
egokituz, gainera, etorbidearen
zati luzeenean aparkaleku ilara
bakarra mantendu dute. Aldaketa
horiekin guztiekin, zirkulazioaren
abiadura mantsotzea ere bilatu
nahi izan du udalak.

Hiri-altzariak ere berri-
tuzte, besteak beste, kalearen bi alde-
tan zuhaitz berriak landatuz;
udaberrian loratzen den neurri
txikiko espezie bat aukeratu dute.
Halaber, zeren plazako ingurue-
tan loreontzi handiak ezarri dituz-
te, Oria kaleko itxurarekin bat egi-
teko, eta eserleku eta bizikleta-
aparkaleku berriak ere jarri
dituzte etorbide eraberrituan.

Azkenik, alkateak aipaturiko
helburu jasagarri horri begira,
kaleko argiteria guztia LED siste-
ma baliatuz eraberritu dute.

Eguberria darie, jada, iluntze tolosarrei

I. Urkizu

Tolosa&Co elkarteko merkatarie-
kin batera, Tolosako Udalak aur-
tengo Eguberrietako argien piz-
tea egin zuen asteartean, Trian-
guloa plazan. Urteroko moduan,
haur eta gaztetxoek lilura eragin
zieten animalia argiztatuek, eta
hainbat argazkitarako dekoratu
bilakatu zen Gaztelako arkupea.

Kaleko gabon-argiak ezartze-
ko lanak duela zenbait aste hasi
zituzten Tolargiko langileek eta,
guztira, 50 egitura ezarri dituzte
herrian barrena. Bolak, konoak
eta zuhaitz txikiak baliatu dituz-
te apaingarri lanetarako, eta San
Frantzisko pasealekua, Araba

etorbidea, Alde Zaharra, Larra-
mendi, Amarotz auzoa, Lopez
Mendizabal plaza, Iurre auzoa,
Montezkue auzoa, Gernikako
Arbola, Emeterio Arrese, Zuma-
lazarregi etorbidea, Solana, Ron-
dilla kalea, Belate, Bedaio, Urki-
zu eta Aldaba auzoak apaindu
dituzte festa egunetarako. Era
berean, udaletxea, musika esko-
la eta kultur etxea ere argiztatuta
izango dira Eguberrietan.

Aipatzekoa da, Kale Nagusiko
eta Errementari kaleko merkata-
rien ekimenez, datorren astean
piztuko dituztela bertan argiak.
Urtarrilaren 7ra bitarte, beraz,
Eguberria argitan izango da To-
losan.



Urtarrilaren 7ra bitarte, iluntzero piztuko dituzte Eguberrietako argiak Tolosan. I. URKIZU

Bizi Nahi
erretirodunen
elkarteak gabonsariak
banatuko ditu

IBARRA // Bizi Nahi erretirodunen elkarteak abenduaren 11tik 22ra banatuko ditu gabonsariak elkarteak kideen artean. Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 12:45ak arte banatuko dituzte elkarteetan bertan. Gabonsaria jasotzeko, elkarteak kideek bazkide txartela erakutsi beharko dute. Bazkideak berak ezin badu joan, norbait bidali dezake bere bazkide txartelarekin.

Merkatu Txikia
laguntzeko epea,
zabalik

IBARRA // Larunbatean bukatuko da Ibarrik Misio Taldeak antolatzen duen Merkatu Txikira gauzak eramateko epea. 17:00etatik 20:30ak arte jasotzen dituzte plazan bertan dagoen parrokiako lokalean. Merkatu Txikia abenduaren 10etik 17ra irekiko dute eta jasotzen duten dirua Ekuador, Honduras eta Indian abian dituzten proiektuetara bideratuko dute.

Bluesa nagusi izango
da bihar, Orbela
tabernan

TOLOSA // Blues gaua izango dute bihar, ostirala, Tolosako Orbela tabernan. Ñaco Goñi, Fernando Beiztegui eta Armand Macere musikariek kontzertua eskainiko dute, 23:30etik aurrera, Orbelako Gauak ekimenaren barruan.

Errail bat itxiko dute
Ibarran, Berastegiko
noranzkoan

IBARRA // Gipuzkoako Urak-ek Ibarran abian dituen lanen hurrengo fasea hasiko da astelehenetan. Ur hornidura sarearen ordezkatzeko egiten ari diren lanak direla eta, Ibatetik Euskal Herria kaleko 65. zenbakiraino doan tartean errepideko errail bat itxiko dute 24 orduz, Berastegiko noranzkoan. Trafikoa semaforo bidez arautuko dute eta erraila gutxienez bi astez egongo da itxita. Erraila ixtearen ondorioz, ilara luzeak sortuko direla aurreikusten du udalak. Azkue, Zaldune, San Bartolome, Uzturre eta ikastolan sortuko ditu eragozpen gehienak.

Mendizabalek Etxaniz estutu du, baina ezin izan du garaitu

Leire Etxanizek irabazi du Emakume Master Cup txapelketako elite mailako finala, Mendizabal anoetarra 13 tantotan utziz

Erredakzioa Anoeta

Partida gogorra espero zen. Emakume Master Cup txapelketako elite mailako finalak Anoetako Maider Mendizabal eta Etxebarriako (Bizkaia) Leire Etxaniz jarri zituen elkarren aurka, eta partidako faboritoak irabazi zuen azkenean, Etxaniz, alegia. 22-13 utzi zuten markagailua, eta pilotakada ederrak ikusteko aukera eskaini zuten, ikusleen txalo zaparradak eraginez.

Sopelako udal pilotalekuan izan zen finala eta harmailak jendez lepo zeuden. Sarrerarik gabe ere geratu ziren asko. Bizkaitarrak hasi zuen partida eta lehen tantotik hasi ziren luze jokatzeko. Tanto luzeak eta gogorrak eskai-



Emakume Master Cup-eko txapeldunak, atzo, Sopelako pilotalekuan. ATARIA

ni zituzten. Anoetarrak presarik gabe jokatu zuen, baina ez zuen asmatzen. Ez zuen markagailuan aurea hartzeko aukerarik izan, baina hiru tantora ere jarri zen (14-11), txapelduna estutuz eta partidako unerik ikusgarriena sortuz, baina ezin izan zion martxari eutsi, eta nekea ere nabari zitzaien. Mendizabalen horma bikoa zabalera (11-7) eta 12. tantoak txalotuak izan ziren.

Final ederra eskaini zuten bi pilotariek. Partida bukatuta

Mendizabalek aitortu zuen markagailuak ez zuela partidaren gogortasuna islatzen, baina gogorra izan zela, «ez dut oso ondo pasa», bota zuen.

«Tanto batzuetan arriskatu dut, baina ezin. Nire estrategia argi nuen, baina akatsak egin ditut eta ezin izan diot aurea hartu. Fisikoak ere badu garrantzia eta nekeak ere berea egin du. Saiatu naiz, gantxo bat eta boleo pare bat sartu dizkiot eta kontentua naiz», esan zuen.

Pilotan ere, ertzetik erdira

Harmailetatik
Jexux Murua

Sopelako frontoiko harmailak gainezka direla jokatu dira Emakume Master Cup lau t'erdiko txapelketako finalak, eta izan omen dira sarrerarik gabe frontoi atarian gelditu direnak. Frontoira sartzeko zoria izan dutenei, eta etxeko sofako gozotan telebistaz ikusi dugunoi, ikuskizun oso-oso polita eskaini digute lau finalistek. Batik bat, elite mailakoek, Leire Etxaniz etxebarrirak eta Maider Mendizabal anoetarrak.

Galdu egin du Maiderrek, 22-13, baina berak ondo esan duen bezala, emaitza jokoaren datu hotz bat besterik ez da, erabakigarria baina. Bi joko proposamen ikusi ditugu: Leirerena, fisikoan oinarritua, eta Maiderrena teknikan. Leirerena tantoari eutsi, gutxi arriskatu eta aurkaria nekaraztera pentsatua, eta Maiderrena tantoak laburtzera, ertzak bilatzera eta arriskatzera. Lehena atera da garaile, sasoiak irabazi dio pikarokeriari. Baina, estua-

goa izan zitekeen markagailua, eta estutzen hasita, Maiderren aldera ere eror zitekeen partida.

Ez du txapel hau burura ematerik izan Maiderrek, baina hortxe-hortxe ibili da. Bi hamarkada luze pasa daramatza emakumeen pilota munduan, mundu osoan gainera, eta erreferente nabarmena da emakumeen pilota jarraitzen duten guztientzat, ezbairik gabe. *Orain dela hamar bat urte harrapatu banitu!* Pentsatu izango du noiz edo noiz, pilota munduan, paleta modalitatean daitekeen guztia irabazi duen emakume, ausartuko naiz esatera, ezezagun honek. Ez, behintzat, behar bezain ezaguna. Ertzean jarraitzen du. Atera kontuak, emakume pilota non eta nola dagoen.

Pilotan garrantzitsua da ertzak bilatzera, baina lekua irabazi behar da horretarako, intentzio hutsen gelditzeko arriskuak gehiago dira-eta bestela. Pilotalekua erdigunea hartzen duenak asko dauka irabazia. Eta erdigune benetako hori topatu beharra daukate eta ausartuko naiz hau esatea ere, gogo hori duten emakumeena da ardura, beste inork ez dio eta helduko beraiek adina-

ko gogoz. Bestelako irudia eman badezake ere gaur -frontoia betebete eginda, ETB1 zuzenean, joko ikuskizun ona, babesle handikiak eta hitz lore sorta ederrak-, ezin diogu ezin ikusia egin errealtateari, eta ertzean dago emakumeen pilota jokoa, ez eskuz bakarrik. Final hauek iragartzeko antolatzen mahaian, pilotari protagonistak ertzetan ikusi genituen. Urrezko dominan bat irabazten ez badute ez dugu berehala jakingo zer egiten ari diren egun hauean Uruguain jokatzeko ari diren munduko txapelketetan eta Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan, eskuz, ezin izan da alebin eta infantil mailako txapelketarik antolatu nesken mailan, talde bakarrik eman duelako izena maila bakoitzean. Pilota elkarte oso gutxiren agendan dago, hitz onez aparte, emakumeen pilota lantzeko lerroa. Eta abar.

«Pixka bat handietsi egin da... Hasiera bat dela uste dut. Ea, behintzat, jendea esnatzeko balio duen», esan berria du Maiderrek gure egunkari honetan, final hauen aitzakian egindako elkarriketan. Bat nator. Baina esnatzea ez da aski izango, jaiki ere egin beharko dugu, ezta?

Hiru puntuak etxean!



Aulkitik

Izaro Goenaga
Tolosa CF, Euskal Liga

Larunbat arratsaldean, elurraren konpaniaz zein beste batzuk oraindik aurreko eguneko parrandako zenbait momentu gogoratuz, iritsi ginen Usabalera.

Ligako aurkari guztien aurka jokotuta genituen partida guztiak Mariño izan ezik. Bagene-kien partida zaila izango zela beraiek 2. mailatik jaitsitakoak baitira eta izugarritzko esperientzia ere badute Euskal Ligan.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago izugarritzko gogoarekin ekin geniola beroketari partidaren zentratuta geundelako.

Partida hasi zen eta lehen zatian beraiek aukera asko izan zituzten. Beraiek izan zuten baloiaren jabetza handiagoa, baina atsedenaldira 0-0 iritsi ginen.

Bigarren zatia hasi zen eta elurra zein kazkabarra gure konpainian ere bazeuden, baina nahiz eta eguraldiak ez lagundu hortxe iritsi zen Izarneren jaurtikea area kanpotik eta sare barrura sartu zen bigarren zatiko bukatzean ia. A ze gola! Azkenen beste 3 puntu garrantzitsu lortu genituen etxean eta lehenengo buelta osoa galdu gabe pasatzea lortu dugu.

Baina oraindik beste partida bat geratzen zaigu urtea ezin hobeto bukatzeko, hain zuzen ere, Hernaniren aurka jokatu duguna abenduaren 9an 16:00etatik aurrera, Usabalen bertan.

Animatu!

Kataluniako independentzia prozesuaren motorra izan dira CDRak. Bertan parte hartzen duten hiru kidek hitzaldia eskainiko dute gaur Anoetan.

Herritarren botereaz

Ane Urkola Anoeta

Azken hilabeteetan Kataluniako independentzia prozesuak hautsak harrotu ditu mundu osoan, eta baita Euskal Herrian ere. Urriaren leian independentzia erreferenduma egin zuten eta urriaren 27an Kataluniako Parlamentuak Errepublika aldarrikatu zuen.

Ukaezina da herritarren mobilizazioa izan dela independentzia prozesuaren motor nagusia. Prozesu honetan guztian, herritar horien bilguneak izan dira CDRak -Errepublikaren Defentsarako Komiteak-. Kataluniako herri askotan sortu ziren uda aurretik, eta bertan parte hartzen duten bost kidek hiru hitzaldi eskainiko dituzte Euskal Herrian; horietako bat gaur izango da, 18:30ean, Anoetako Gaztetxean.

Sergi Estevez (1991, Andorra) Bartzelonako Gracia auzoko komiteko kideak azaldu du horien sorreraren zergatia: «Urriaren leko erreferendumean eskolak defenditzeko sortu ziren. Horietako asko ezker independentistak bultzatu zituen, baina gaur egun hainbat ideologiatako herritarrek osatzen dituzte».

Estevezek azpimarratu duenez, herritarren «desobedientzia uholdea» ezinbestekoa izan zen urriaren leko erreferenduma burutzeko: «Espainiako Estatuaren errepresioaren aurrean, herritarren mobilizazioak ahalbidetu zuen erreferenduma. CDRetan sekulako lanketa egin zen eta egun horretan ikusi genuen



Irudian, Bartzelonako Gracia auzoko CDRko batzarra. ARGIA

emaitza: desobedientzia ekintza ikaragarria».

Urriaren 10ean, Carles Puigdemont Kataluniako Gobernuako presidentek independentzia aldarrikapena bertan behera utzi zuen. Hori horrela, izena aldatu eta Errepublikaren Defentsarako Komiteak izena hartu zuten: «Kataluniako Gobernuaren zati bat espetxean dagoenez eta Kataluniako hainbat instituzio Espainiako Gobernuak kontrolatzen dituen, herritarren mobilizazioa ezinbestekoa izango da independentzia prozesuak au-

rrera jarraitu eta Errepublika defenditzeko».

HAUTESKUNDEAK, PROZESU KONSTITUZIOGILEA JOMUGAN

Kataluniako independentzia prozesuan hurrengo geltokia abenduaren 21eko hauteskundeak dira: «155. artikulua ondoz inposatu dizkiguten hauteskundeak badira ere, CDRko kideek mobilizaziorako deia egin dugu. Ez dugu alderdi baten edo beste baten aldeko botoa eskatzen baina garrantzitsua da alderdi soberanistek gehiengo

lortzea», azpimarratu du Sergi Estevezek.

Izan ere, nabarmendu du hauteskunde horien helburua dela «urriaren leko erreferenduma-ren emaitza eta urriaren 3ko greba orokorrean kalean demostratu genuena defenditzea. Ezin dugu atzera egin, ezin dugu autonomia estatutuaren aplikazioaz hitz egin», laburbildu du.

Zentzu horretan, Errepublika sortzeko prozesu konstituziogilea martxan jartzea da datozen hilabeteetako erronka: «Errepublika oinarrietatik eraikitzen

PROZESU KONSTITUZIOGILEA MARTXAN

Kataluniako hainbat herri mugimenduk Kataluniako Prozesu Konstituziogilea garatzen hasi dira, Argia astekariak jaso duenez. Horretarako, *Aixequem la República* -Errepublika Eraiki euskaraz- lelopean, ekitaldia egin zuten abenduaren 2an Bartzelonan.

Kataluniako Parlamentuak Prozesu Konstituziogilearen planteamendua onartu zuen; horrela, prozesu parte-hartzailea martxan jartzea aurreikusi zuten, Asanblada Konstituziogilea eraikitzeaz gain. 155. artikulua aplikazioaren ondorioz, ordea, ez da prozesurik garatu.

Ekimen horren helburua prozesu hori martxan jartzea da: «Oinarri herrikoia duen eta debate sozial bat sortzeko gai den prozesu konstituziogile bat hasi behar dugu, ez dagoena alderdi politikoei lotua». Adierazi dute prozesu konstituziogilea ez dela prozesu juridiko hutsa, indar harreman materiala baizik: «Errepublika ez da soilik aldarrikatzen, eraiki egiten da. Nahi dugun errepublika inklusiboa da, demokratikoa, berdinzalea, feminista eta antirrazista», jaso dute adierazpenean.

hasi behar dugu, herritarrengandik, Errepublikak eduki soziala izan dezan».

Batzar horietan alderdi politiko ugaritako jendea dago, baina eduki sozialaren inguruko gutxieneko dekalogo ideologikoa onartuta dute: «CDRek, ordea, ez dute Katalunia osoa hartzen eta jende gehiagorengana ailegatu behar dugu», azaldu du.

Kataluniako independentzia prozesua, gaur egungo egoera eta erronkak hizpide izango dituzte; gaur, Anoetako Gaztetxean, 18:30ean.

Hilberriak eta urteurrenak



Roxarito Arrue Gerriko

-Goian bego-

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
badakidalako irauten duela
orainak ere gogoan

ZURE ILOBAK

SEGURAN, 2017ko abenduaren 7an

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

atarian jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Ibarrako Haizeak 10 urte besterik ez ditu, baina gauzak argi ditu. Ez dagokion gorputzean jaio zen, eta saltoa ematea erabaki du; beti izan da neska, baina abuztutik bestean begietara ere aldatu da.

Aldaketarik naturalena

Rebeka Calvo Ibarra

Naturaltasunez hartu zuen Haizearen familiak neska dela adierazteko eman duen saltoa. 10 urte ditu eta ikasturte berri honekin batera kendu du neska dela barruan gordetzeko zama. Arantxa Arrospide da Haizearen ama eta gogoan du duela urtebete esan zuela lehen aldiz neska dela. «Lehen aldiz esan zigunean, anaiak negarren eman zuen gaua eta nik uste horregatik bota zela atzera». Gurasoek ordea, argi zuten salto hori eman behar zuela eta pasa den udara mugarri izan zen familiarentzat. «Udaran aitzak esan zion 10 urte barru edo bera bezalako itxura izango zuela eta hori entzutean erabaki irmoa hartu zuen», gogoratu du. «Egun horretan hartu zuen erabakia eta guztiok babestu dugu», gaineratu du.

Erabakiak ez ditu ezustean harrapatu, «ikusten da», dio amak. «Txikitatik ikusten den zerbait da, gure kasuan behintzat, eta orain zama bat kendu du. Lehen ezkutatu egiten zen, latsa ematen zion panpinekin kalera ateratzea, adibidez, baina orain oso pozik dago, oso naturala izan da dena».

Horren natural, haurrak erabakia hartu eta hurrengo egunean hasi zutela inon idatzita ez dagoen prozesua. «Gizonak esan zidan hurrengo egunean soinekoa janzteko eta ez zuen inongo arazorik izan. Soinekoa jantzi eta kalera joan ginen, normal-normal. Merkatalgune batean ibili ginen, natural, ondo. Kontu bakarra soinekoa eta galtzoinak zituela, horixe esan zion aitari: 'Zer arraroa aita, soinekoa eta galtzoninekin'. Arropa berriak erostera joan behar izan genuen, nesken gauzak erostera».

Etxean ere anaiaren lehen erreakzioa eta gero gauzak bere onera etorri zirela esan du Arrospidek eta segituan eman ziotela buelta egoerari. «Ez da arazorik egon, anai txikiak ere arazorik gabe hartu du albiste, geroz eta txikiago, geroz eta hobeto, esango nuke nik».



Geroz eta ezagunagoa da ume transexualen gaia gizartean, besteak beste Chrysallis elkarteari esker. ATARIA

Etxean, natural, eta etxetik kanpo, lehengusuekin eta abarrek ere, natural. «Lehengusuekin asteburu pasa joan ginen eta arazorik ez genuen izan, oso natural hartu zuten dena, beraien ere badute transexuala den ikaskide bat eta oso naturala izan zen dena».

IKASTURTE BERRIAREKIN

Pasa den ikasturtea mutil bezala bukatu zuen, baina hasi, Haizea bezala hasi du eta horretan ere ikastolak azaldu duen prestutasuna nabarmendu du amak, «lehenago ere ikastolan gai honen inguruan hitz egin genuen, baina pausoa berak eman behar zuela argi genuen. Guk informazioa eman diogu, hitz egitera animatu... baina berak esan arte

ez dugu ezer gehiagorik egin». Eta behin aurrera egiteko ausardia atera duenean, denek babesu dute, baita ikaskideek ere. «Ikasturtea hasterako ikastolako arduradunekin hitz egin genuen, guztia kontatzeko. Ikaskideek eskolak hasi eta Haizea pixka bat beranduago sartu zen gelan. Irakasleak ikasle berri bat, Haizea, hasiko zela esan zien eta ikasle guztiek oso ondo hartu zuten dena. Haizea ere oso ondo dago. Egia esan Haizeak oso argi ditu gauzak, txikitatik esaten du handitan moda diseinatzaile edo horrelakoren bat izan nahi duela, eta horrek ere tematuta dago, oso egoskorra da».

Gauzak argi ditu Haizeak eta gizarteak gauzak horren argi

edukitzea izango litzateke egokiena.

Haizea zoriontsu da orain eta hori etxean ere nabaritzen dute, noski. «Aldea dago, orain oso ondo dago. Aitarekin ere hobeto moldatzen da orain. Nik uste lehen bere burua ikusten zuela aitarengan eta ez zuen onartu nahi. Aita harrituta zegoen, beste seme-alabekin bezala egoten baitzen berarekin, baina orain konturatzen gara zergatik zuen aitarekiko jarrera itxi hori».

Kezkak ere izan dituzte etxean, baina «behin erabakia hartuta» denak uxatu dituzte; «Haizea horren ondo eta zoriontsu ikusten dugu, dena ahaztu dugula. Ume bat ondo ikustea baino gauza garrantzitsuagorik ez dago. Lehenago ez zegoen ondo, pen-

tsa zurea ez den gorputz batean egonda, nola egongo zen gustura. Orain oso ondo dago».

Senitarteko eta lagunek «naturaltasunez» hartu dute aldaketa, baina gizartea orokorrean, ez du prest ikusten Arrospidek. «Pena da, baina oraindik asko aurreratu behar da gai honetan».

«Pena da, baina oraindik asko aurreratu behar da gai honetan»

Kalean eman duen saltoa, paperean eman behar du orain, Haizeak, eta izena aldatzeko prozesuan daude orain. «Donostiako epaile batek eman behar digu baimena izena aldatzeko. Haizea bezala ezaguna dela frogatu behar dugu; liburutegian, ikastolan, kiroldegian... geroz eta dokumentu gehiago eduki non Haizea bezala den ezaguna, orduan eta hobeto». Prozesua ez da bereziki nekeza amaren hitzetan, baina erraztu egin beharko litzatekeela ere uste du.

Haizea oraindik txikia da eta lehen pausoa eman badu ere, gehiago eman beharko ditu eta hor ikusten ditu eragozpen gehiago Arrospidek. «Hemendik Gurutzetako ospitalera bidaltzen dituzte eta hor badago oraindik zer egina».

Haizea orain dela gutxi arte psikiatra batengana joan da eta berak emandako baimen ofizial batekin joango dira Gurutzetako ospitalera, «ospitallean gizon garapena moztuko diote blokeadore batzuekin, eta orduan erabakiko dute noiz hasi hormonatzen».

Denbora kontua da besterik ez da. Haizeak eman du saltoa eta bera jada, zoriontsu da, «berak erabaki zuen Haizea izena nahi zuela, baina egia esan berdina zaio izena, bera neska da, eta horrela ateratzen zuten kalera, eta hori lortu dugu jada, bestea, burokrazia eta, denbora kontua besterik ez da». Haizearen familiak eman du pausoa eta laguntzeko prest daude, hortik egindako gomendioa: «Umeari den bezalakoa onartzeko, umek ez dute gezurrik esaten, eta sentitzen dutenari erreparatzeko».

IZENA ETA SEXUA ALDATZEKO PROZESUA ERRAZTUKO DUTE

Espainiako diputatuen biltzarrak egoera zibileko erregistroan izena aldatzeko prozesua erraztea helburu duen proposamena aztertzea onartu du.

PSOE alderdiak egin du proposamena eta Unidos Podemos zein

Ciudadanos alderdien babesari esker, behin betiko onartua izateko bidea hasi berri du.

Orain arte adintxikikoen sexua zein izena aldatzeko mediku txosten batzuk aurkeztu behar ziren eta horiek bertan behera uztea aurreikusten du proposamenak. 203 aldeko boto eta 130 kontrako izan zituen diputatuen biltzarrean, PP izan zen aurka azaldu zen alderdi bakarra.

Zehazki hiru aldaketa egin nahi dituzte indarrean dagoen 3/2007 legean. Batetik, transexualak diren

adin txikiek egoera zibileko erregistroan sexua eta izena aldatu ahal izatea nahi dute. 16 urte edo gehiago badituzte, eurek bakarrik egin ahal izango dute eskaera eta txikiagoak izanez gero, euren guraso edo tutoreek egin beharko dute. Bestetik, transexualitateari «patologia izatera kendu» nahi diote, eta horregatik ezabatu nahi dute mediku txostenak aurkezteko eskaera. Azkenik, atzerrian bizi diren transexualei lan baimenean edota bizi- zeko baimenean sexu eta izena aldatzeko aukera zabaldu nahi diete.



OSTEGUNA, 2017KO ABENDUAK 7
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



laz egin zen lehenengo aldiz azoka eguna eta arrakastatsua izan zen. IRATI SAIZAR

Abenduan antolatzen dute Altzon kultur astea, Olentzerotan Jakin Minez izenarekin ezaguna. Igandean egingo duten azoka egunarekin emango diote hasiera ekitaldiz beteriko asteari.

Oparidun astea

Erredakzioa Altzo

Altzoko kultur eskaintzak indarra hartzen du abenduaren erdialdera, eta aurten, XXI. ez, berriro ere ekitaldi sorta prestatu dute herriko Kultura Batzordekoek Olentzerotan Jakin Minez egitasmorako. Argazki rallyarekin hasi ziren eta datorren astebetean hainbat ekitaldi izango dira, igandeko azokarekin hasita.

Guztira 35 postu inguru izango dira bigarren azoka egunean, horietatik 12 herrikoak. «Iazko arrakastaren ondoren, berriz antolatzea pentsatu dugu», esan du Lurdes Murua zinegotziak. «Saltzaileak gustura geratu ziren eta aurten postu berriak izango dira. Arrakasta berdina izanez gero aurrerantzean ere antolatzen jarraituko dugu». Elikagaiak eta eskulanak erosi ahalko dira azokan, eta hainbat postu ere izango dira bertan zerbitzu jan eta edateko.

Beste egunetan hitzaldiak eta emanaldiak tartekatuko dira, eta ohiko talo jatearekin emango zaio amaiera asteari.

OLENTZEROTAN JAKIN MINEZ

Abenduak 10, igandea

10:00-14:00. Azoka Eguna. Bigarren aldiz egingo da herriko plazan, 10:00-14:00 bitartean. Eguraldi eurtsua egokituz gero, frontoian izango da. Produktu ugari bertaratuko da, hara nola, babarrunak, azak, porruak, gaztak, jogurtak, sagarrak, intxaurrak, arrautzak, eztiak, opilak, gozokiak, ogiak, taloak, odolkiak, mondejauak, txorizoak, sagardoa... baita, artisautezko lanak, makilak, xaboiak, ukenduak, belarrak... eta abar.

Abenduak 12, asteartea

19:00. *Kataluniara begira*, hitzaldia. Estitxu Eizagirre (*Argia* astekariko zuzendaria) eta Martxelo Otamendi (*Berria* egunkariako zuzendaria). Batzarre-muñon. Ondorenean mokadutxobak ahozatzeko aukera izango da.

Abenduak 14, osteguna

19:00. Hitzaldia. Anizeto Olano 'Migel Altzo': *Euskal eskola, gerrak zapuztutako ametsa*. Onintza Odriozola Irizarrek *Hizkuntza eta hezkuntza: Migel Altzo eta gerraurreko hezkuntza elebidun lanaz mintzatuko da*. Udaletxeko ekintza eta batzar aretoa.

Abenduak 15, ostirala

22:00. 2 poliedro taldearen kontzertua. Musikiariak: Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarena. Batzarre-muñon.

Abenduak 16, larunbata

16:00. Eguberrietako apaingarriak egiteko familia tailerra. Udaletxe azpiko lokalean.
19:00. *Autobiographikal*. Poesiaz gozatzeko beste modu bat hautatu dute Ane Zubeldiak eta Eider Perezek: jendaurrean antzerkitzea. Mundu guztiko emakume poeta ezagun eta ez hain ezagunen olerkiak hartu, antzeztu eta haiekin esperimentatu egiten dute. Batzarre-muñon.
20:00. Talo jatea. Umeak eta gazte-txoak afalduko dute lehenik eta 21:00etan, gazteak eta helduak. Menua: Taloa, hirugiharra, txorizoa, gazta eta gaztainak. Elordi elkarte-an.

Abenduak 21, osteguna

18:30. Musika emanaldia. Loatzo musika eskolako ikasleek eskainiko dute musika ikuskizuna. Batzarre-muñon.

AGENDA

Deialdiak

Tolosa. *Selfie*, filma. Zine Foruma. Ja-torritzko bertsioan. 19:15 eta 21:45ean, Leidor antzokian.

Tolosa. *Toycon*, erakusketa. Art Toys-en Unibertsora bidaia bat da. Aranburu jauregian.

Tolosa. Ate irekiak. Gipuzkoako Artxibo Orokorak Ate Irekiak jar-dunaldiak egingo ditu. Bisitak egi-teko ez da izena aurrez eman be-harrik izango. 11:00etan eta 13:00etan izango dira euskarazko saioak eta 12:00etan gaztelera-zkoak. Arratsaldean, berriz, 17:00etan izango dira euskarazko saioak, eta 16:00etan eta 18:00etan gaztelera-zkoak.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan zehar.
Euskal musika.

28 KANALA

12:30. Kulturriketak.
13:30. Gaurkoan Tolosalde-tik.
17:30. Gaurkoan Tolosalde-tik.
21:30. Gaurkoan Tolosalde-tik.
22:00. Ikusi Irratia.
23:30. Gaurkoan Tolosalde-tik.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoia.
Bronte Posada, C.

Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 676013.
Gauekoa. Morant Barber, R.
Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro eguzkitsua izan-go dugu baina oraindik ere nahiko hotza izaten jarrai-tuko du. Goiz hotz baten ostean eguneko erdiko orduetan tenpera-tura atseginagoak izan arren, epel usain gutxi izango dugu gaurkoan. Tenperatura balio altuenak 11-13 gradutan izango dira hego haizeari esker. Zeruari dagokionez aitzakia gutxi izango dugu. Zerua urdin man-tenduko da ia egun guztian zehar, nahiz azken orduetan mende balde-tik goi hodei batzuk agertuko diren.

Bihar. Giroa aldatzen joan-go zaigu. Goizean eta arra-tsalde erdira arte giro la-saia izango dugu. Goi hodei asko izango dira zeruan baina inolako ondoriorik ez diote ekarriko gaur-koan eguraldiari. Arratsalde erditik aurrera zerua estali eta zaparrada isolaturen bat edo beste izango dugu. Hego-mende baldeko haizea bizi ibiliko da eta tenperatura balio altuenak ez dira 11-12 gradutik pa-sako.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20

Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez